Zangoza / 2025

# KULTUR AGENDA

## otsaila



Ayuntamiento de Sangüesa/Zangoza

CASA DE CULTURA SANGÜESA PALACIO VALLESANTORO KULTUR ETXEA ZANGOZA

Nafarroako Gobernua

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

## Vallesantoro Jauregia/Kultura-Etxea

**Kultura-zerbitzuko arreta ordutegia:** astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

**Vallesantoro Jauregia/Kultura-Etxeko eta Erakusketa aretoko ordutegia:** asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

**Helbidea:** Alfontso Borrokalaria Karrika 20. **Telefonoa:** 948 870 251.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetan eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es.

Facebooken eta ww.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agenda jarrai dezakezu.

www.facebook.com/culturasanguesa www.instagram/com/culturasanguesa

## Karmengo Entzunaretoa

**SARRERAK SALTZEA**

**Aldez aurreko salmenta: otsailaren 4tik aitzina** Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik 24 orduz www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. **Telefonoa:** 948 870 251.

**Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan:** Karmengo Entzunaretoko txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik. **Telefonoa:** 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko.

Ikuskizunaren etena sarreren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izanen da.

**Beherapenak Gazte txartelarekin:** 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beherapenez gozatu ahal izanen zara.

**ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA**

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozatzen ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.
Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

**ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO**

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikoan edo deitu 948870251 telefonora, edo adierazi txartel-leihatilan erosketa egiterakoan.
Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman. Datuak babesteko legea hemen kontsulta dezakezu: www.sanguesa.es

L.G.: NA 1735-2012

Zangoza / 2025

# KULTUR AGENDA

## otsaila

aurkibide kronologikoa









| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | La | Erakusketa. «Pintura y montaña, diálogos en las cumbres» (otsailaren 2ra bitarte) | 4. Orr. |
| **2** | Ig | Zinea. «Kung Fu Panda 4» | 8. Orr. |
| 3 | Al | | |
| 4 | As | | |
| 5 | Az | Ipuin kontalaria. «Los refranes de Irati» (gaztelaniaz) | 9. Orr. |
| 6 | Og | Erakusketa. «Nafarroa Ezagutu XVII. Argazki-Lehiaketa» 2024ko finalistak (martxoaren 2ra bitarte) | 4. Orr. |
| 7 | Os | | |
| 8 | La | Keinuen bidezko antzerkia. «War baby» | 5. Orr. |
| **9** | Ig | | |
| 10 | Al | | |
| 11 | As | Erakusketa. «Una mera curiosidad: Artemisia Gentileschi, una pintora con voz propia» (otsailaren 14ra bitarte) | 4. Orr. |
| 12 | Az | | |
| 13 | Og | | |
| 14 | Os | Pablo Sarasate Kontserbatorioko Kantu ikasleen kontzertuak | 10. Orr. |
| 15 | La | Antzerkia. «Una mera curiosidad» | 6. Orr. |
| **16** | Ig | | |
| 17 | Al | Musika Eskolaren kontzertua | 10. Orr. |
| 18 | As | | |
| 19 | Az | Ipuin kontalaria. «Oso printzesa iletsua» (euskaraz) | 9. Orr. |
| 20 | Og | | |
| 21 | Os | | |
| 22 | La | Musika. «Cuarteto 3D» | 6. Orr. |
| **23** | Ig | | |
| 24 | Al | | |
| 25 | As | Musika Eskolaren kontzertua | 10. Orr. |
| 26 | Az | | |
| 27 | Og | | |
| 28 | Os | Inauteria. Kalejirak | 8. Orr. |
| | | «Si el corazón hablase» liburuaren aurkezpena | 10. Orr. |


**MARTXOA**


| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | La | Inauteria. Txokolatada, DJak | 8. Orr. |
| **2** | Ig | Inauteria. Pailazoak, clown. «Bromas dulces como la miel» | 7. Orr. |


Azaleko irudia: «War baby»

# Erakusketak



## «PINTURA Y MONTAÑA, DIÁLOGOS EN LAS CUMBRES»
**Jose Mª Arriazu. Urmargoak**

### OTSAILAREN 2RA BITARTE

«Mendi astea dela eta, hogei bat akuarela lan aurkezten ditut, non lagunen eta mendizaleen argazkiak erreproduzitzen ditudan. Horiek egitean, gailurrera iritsi zirenean sentitu zituzten emozioak sentitzen saiatzen naiz».

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko behealdeko solairuko Erakusketa Aretoa.



«Sombras y luces». Javier Camacho.



«Niebla en Bardenas Reales». J.C. Comerón.

## «NAFARROA EZAGUTU XVII. ARGAZKI-LEHIAKETA». 2024KO FINALISTAK

### OTSAILAREN 6TIK MARTXOAREN 2RA

Conocer Navarra aldizkariak bere argazki-lehiaketaren irudi finalistak aurkezten ditu. Gure herriarekin maitemintzeko argazkiak: gure jaien eta tradizioen onenarekin, gure ondarearekin eta noski, gure paisaiekin.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultur etxeko Erakusketa Aretoa.

**Antolatzaileak:** Conocer Navarra eta Diario de Navarra.

**Babeslea:** Eroski.

**Laguntzaileak:** Camera, Reyno Gourmet, Gazte Txartela eta Nafarroako Kanpinen Elkartea.



## «UNA MERA CURIOSIDAD: ARTEMISIA GENTILESCHI, UNA PINTORA CON VOZ PROPIA»

### OTSAILAREN 11TIK 14RA

Otsailaren 15ean, larunbatarekin, Karmengo Entzunaretoan antzeztuko den «Una Mera Curiosidad» antzezlana dela eta, Producciones Maestras konpainiak erakusketa hau diseinatu du. Bertan, Italiako margolari barroko bikain honen bizitza eta lana azaltzen dira, artearen historian zehar beste emakume anitz bezala ezabatuta.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultur etxeko ezkaratza.

**Erakusketa aretoko bisita-ordutegia:** asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

# Arte eszenikoak Karmengo entzunaretoan







**KEINUEN BIDEZKO ANTZERKIA**

**«War baby»**

YLLANA TEATRO

## LARUNBATEAN, OTSAILAK 8

**Interpretatzaileak:** (txandaka) Fidel Fernández, Juanfran Dorado, Luis Cao, Yony Elías eta Raúl Cano.

Yllana estilorik garbienean, «War baby» antzezlanak errekrutamendu militarreko zentro batera eramanen gaitu. Zentro horretan herrialdeko lider berriak eragin duen gerra zoro baterako entrenatzen dute soldaldu despistatuen talde bat. Gainera, gertatzen da líder hori mizke hazitako haur gerrazalea dela. Pertsonaia dibertigarri ugari eta gerraren eta boterearen gaiaren inguruan erakusten dituen egoera ero franko izanen dira belizismoaren aurkako Yllanaren satira honen oinarria.

«War Babyk» irribarrez hausnartzera bultzatzen gaitu. Ikuskizun dibertigarria da, umorez, gag bisualez eta erotasun komikoz betea, baina, era berean, badaki soka lasaiaren gainean ibiltzen eta komedia erabiltzen jaurtitzeko arma gisa gerraren zentzugabekeriaren aurrean.

**Ordua:** 19:30.

**Iraupena:** 90 minutu.

**Ikusleak:** gazteak eta helduak.

**Aldez aurreko sarrerak:** 8 €.

**Txartel-leihatilan:** 10 €.

**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

# Arte eszenikoak Karmengo entzunaretoan





**ANTZERKIA**

**«Una mera curiosidad»**

PRODUCCIONES MAESTRAS

## LARUNBATEAN, OTSAILAK 15

**Zuzendaria:** Ana Maestrojuán.

**Interpretatzaileak:** María Álvarez, Ángel García Moneo eta Patxi Larrea.

«Una mera curiosidad» sakonki egungoak diren giza gaiei heltzeko artea erabiltzen duen antzezlan bat da. Urte askotan ahaztuta egon den emakume margolari ezagun baten eskutik, ibilbide dibertigarri eta zirraragarria eginen dugu haren bizitza eta lanetik, benetan bera kezkatzen duen oraina ahaztu gabe.

Antzezlan honetan historiak isiltasunera baztertu duen artista batekin lan egin du berriz ere Producciones Maestras konpainiak, baina, bere eskubidez, hain benetakoa eta fantastikoa den istorio baten protagonista bihurtu da, hain dibertigarria bezain beharrezkoa den istorioa.

**Ordua:** 19:30.

**Iraupena:** 75 minutu.

**Ikusleak:** gazteak eta helduak.

**Aldez aurreko sarrerak:** 8 €.

**Txartel-leihatilan:** 10 €.

**Gazte Txartelarekin:** 5 €. Beharrezkoa izanen da Gazte Txartela leihatilan aurkeztea, sarrera entzunaretoan bertan edo Internet bidez erosita ere.

**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.



**MUSIKA**

**«Cuarteto 3D». Laukotea 3 dimentsiotan**

ARALAR QUARTET

## LARUNBATEAN, OTSAILAK 22

**Interpretatzaileak:** José Ignacio López García, 1. biolina; Sara Sotés, 2. biolina; Alicia Álvarez Lorduy, biola eta Ainhoa Bandres Abadia, biolontxeloa.

Kontzertua 3 multzotan banatuta dago. Lehenengoa «musika klasikoari buruzkoa» izanen da. Ikus-entzuleek ezagut ditzaketen mugimenduak izanen

# Arte eszenikoak Karmengo entzunaretoan



ditu, eta taldearen bestelako instrumentuei emanen zaie protagonismoa. «Zinemako musika» izanen da bigarren multzoko protagonista, hainbat filmetako soinu-bandekin eta publiko guztien gustura.

Eta hirugarren multzoa «musika folklorikoa» izanen da. Bertan, taldeak ezustekoren bat duten hainbat kulturatako piezak interpretatuko ditu.

**Ordua:** 19:30.

**Iraupena:** 75 minutu.

**Ikusleak:** gazteak eta helduak.

**Aldez aurreko sarrerak:** 6 €.

**Txartel-leihatilan:** 8 €.

**Gazte Txartelarekin:** 5 €. Beharrezkoa izanen da Gazte Txartela leihatilan aurkeztea, sarrera entzunaretoan bertan edo Internet bidez erosita ere.

**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.





**PAILAZOAK, CLOWN**

**«Bromas dulces como la miel»**

PRODUCCIONES KINSER

## IGANDEAN, MARTXOAK 2

**Interpretatzaileak:** Joaquín García, Silvia García eta Óscar Hernández.

Kinyk eta Oskyk urte asko daramatzate txantxak elkarri egiten eta inoiz baino elkartuago daude, aita eta semea baitira eta elkar maite eta behar dutelako. Orain Silbotas iritsi da, clown ikastuna, eta, gaztea izan arren, badaki asmoa ez dela besteei barre egitea, besteekin barre egitea baizik. Kinyk, Oskyk eta Silbotasek, pailazo klasikoen estiloari jarraikiz, ikuskizun honetan erakutsiko digute txantxek eztia bezain gozoak izan behar dutela.

**Ordua:** 18:00.

**Iraupena:** 60 minutu.

**Ikusleak:** 4 urtetik gorako haurrak eta familiak.

**Aldez aurreko sarrerak:** 3 €.

**Txartel-leihatilan:** 5 €.

**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

# Zinea




**«Kung Fu Panda 4»**

## IGANDEAN, URTARRILAK 2

**Animazioa. Zuzendariak:** Mike Mitchell, Stephanie Stine.

Po, Bakearen Haraneko Maisu Espirituala izanen dena, bere oinordekoaren bila dabil, Dragoi gerlari berria bezala, «La Camaleona» izeneko etsai berri baten aurka borrokatzen ari den bitartean.

**Ordua:** 18:00.

**Iraupena:** 94 minutu.

**Ikusleak:** ikusle guztiendako.

**Sarrerak:** 3 €.

**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Inauteria








## OTSAILAK 28, OSTIRALA

• **11:15ean.** Zangozako Ikastolako haurren inauterietako kalejira hiriko karriketatik.

• Luis Gil Ikastetxe Publikoko haurren inauterietako kalejira eta jaia hiriko karriketatik (behar bezala zehaztuko da ordutegia).

## MARTXOAK 1, LARUNBATA

• **18:00etan.** Txokolate jatea Arkupeetan.

• **18:30etik 20:30era.** Diskoteka DJ Music saio familiarra.

• **23:00etatik 01:30era.** Diskoteka DJ Music saioa.

## MARTXOAK 2, IGANDEA

• **18:00etan.** «Bromas dulces como la miel» Producciones Kinser taldearekin Karmengo Entzunaretoan.

# Ipuin kontalaria




**«Los refranes de Irati»**
(Gaztelaniazko ipuin kontalaria)
IRATI MUÑOZ

## ASTEAZKENEAN, OTSAILAK 5

Ba al zenekien dantzatzea gustatzen bazaizu dantza egin dezakezula? Eta futbolaria izan nahi baduzu futbolaria izanen zarela? Zurea abenturak badira, ba menturatu! Nahiago baduzu eserita egon, ba eseri! Eser zaitez nik kontatuko dizut eta.




**«Oso printzesa iletsua»**
(Euskarazko ipuin kontalaria)
CELIA FAÑANÁS

## ASTEAZKENEAN, OTSAILAK 19

Luzila printze urdin baten bila dabil; oso guapoa, oso dotorea, oso moñoñoa, gaztelu eta zaldiarekin, animaliei abesten diona, zoriontsu bizi dena eta eperrak jaten dituena. Baina haren bila dabil BEREGANDIK IHES EGITEKO!!

Ze Luzilak bene-benetan nahi duena zoriontsu izatea da. Benetan berak maite duena bere munstro iletsua da eta.

Ipuina baino gehiago: irri eginen duzulako, parte hartuko duzulako eta denbora ziztu bizian pasako zaizulako oso printzesa iletsu horrekin, leku guztietan ileak baititu, mihian izan ezik...

**Ikusleak:** 3 eta 8 urte bitarteko umeak. Adingabeei helduek lagundu behar diete.

**Sarrerak:** doako sarrera edukiera bete arte.

**Ordua:** 18:30.

**Iraupena:** 60 minutu gutxi gorabehera.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Juan Francés de Iribarren Musika Eskola



**Pablo Sarasate Kontserbatorioko Kantu ikasleen kontzertuak**

**OSTIRALEAN, OTSAILAK 14,**

**Ordua:** 19:30.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.



**Zangozako «Juan Francés de Iribarren» Musika Eskolako ikasleen kontzertuak**

**ASTELEHENEAN, OTSAILAK 17**

**ASTEARTEAN, OTSAILAK 25**

**Ordua:** 19:30.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

# Liburuaren aurkezpena




**«Si el corazón hablase»**

PABLO SABALZA ORTIZ-ROLDÁN

**OSTIRALEAN, URRIAK 28**

Maitasuna, itsasoa, heriotza eta denbora dira poema-bilduma sentikor eta garden honetan aurkituko ditugun gai nagusiak. «Bihotzak hitz eginen balu» honetan **Pablo Sabalza** egileak bere bihotzaren atea irekitzen du bertso bakoitzean. Erromantzeak, bertso libreak edo bertso zuriak dira olerkariak **Antonio Guerrero** musikariak pianoari lagunduta emanen dituen konposizioetako batzuk. Egilea, halaber, «La cometa de Miel» (17. edizioa) bere liburu ospetsuaren eguneratzeari buruz mintzatuko da.

**Ordua:** 19:30.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultur Etxeko Hitzaldi Aretoa.